

Autobidearen ondoren, EGUNKARIA

JOAN MARI TORREALDAI



INPROBISATUA

Izan omen da, Eli Galdosen aldetik, autobideari aurkitu bide zaien irtenbidea. Honela esan dit ongi informaturik egon ohi den lagun kazetariak. Hala baldin bada, asko sentitzen dut. Nahiago nukeen, askoz ere nahiago, Galdosen jarrera hori estrategia sakonago baten iceberg-muturra izatea.

Ez al da dagoeneko ordua, bada, gure herriko arazo nagusiak eta txikiagoak desblokeatzen hasteko? Ez ote da, bada, garaia istiluak gogortzera bakar konpontzera joko duen agintealdi bati hasiera ematekoa? Bloke-sistema honek nora garamatzen ikusia dago. Eta, halere, ematen du batzuetan bost axola zaiela hori alderdi politikoei. Horixe areagotzeko daudela ematen du inoiz. Teoria politikoen bakarrik bide daude alderdiak herriaren zerbitzuan. Formetara bakarrik ekarri dugu demokrazia. Eta orain konturatzan gara horiek ere ez direla demokratikoak.

Sinetirik egon naiz, eta areago gaur Eli Galdosen jokamoldea ikusia, borondate politikoa piska bati, noiz irudimena, noiz ausardia nahastu, eta hainbat eta hainbat arazo desblokeatu daitezkeela. Korapilo guztiak ez bait dira gordiarrak.

Autobidearen arazo hain istilutsua konponbidean jartzeko bi bilera behar izan omen ditu Eli Galdosek. Izpiritu berarekin baietz bilera batekin bakarrik bideratu EUSKALDUNON EGUNKARIAren arazoa! Bilera bat nahikoa eta sobra. Irudimena eta ausardia ere sobre daude arazo hau konpontzeko. Aski da borondate politikoa piska bat. Piska bat nahikoa, gainera. Hain erreza da arazoa, eta hain begibistakoa uko itsua!

Arazoak desblokeatu eta konponbidean jartzeko estrategia baten aurrean gaudela sinetsi nahi nuke. Etapa berri bat. Estilo bat. Estilo berri bat. Berehala jakingo da non bukatzen den inporbisazioa eta non hasten estrategia.

Bakarrik

JEXUXMARI ZALAKAIN



BAKARRIK ez gara ezer. Inork ez du gustokoa bakarreda. Ez da atsegina. Erabatekoa denean, antzoka da. Pektu ere bai elkarlanean arakoa izanda.

Bakarrik ez goaz inora. Bakarrik bizitzea erabakitzen duenak, elkarrean du funtsa. Bakarrik, *por libre* dabilenak, ez du irauten. Maiz, zozokeriaren bait egiten du dena ondatur bere grina asetzeko. Momenturik ezustekoenean, dena hankaz gora jarriko dizu. Proiektua, xede orokor eta zehatza behar bait da erauntsian ez itozteko.

Baina gauzarik inportanteenetan, bakarrik gauden. Ezinbestean. Bakarrik Herioaren begi hotzen aurrean. Bakarrik agintearren eraso bortitziari euste. Bakarrik norberarekin borroka latzean. Bakarrik bizitzaren unerik ederren eta gogorrenetan. Bakarrik, inoren babesik gabe. Norbera baii da eta ez taldea, multzoa, gehiengo, taldekoa, erantzule. Onerako eta txarrerako.

Merezi ote? dio kantariak. Jokuan duintasuna dagoenean, bai; merezi du bakarrik egoteak. Ez dago, gainera, beste erremedioirik. Baina burruka kolektiboan segitzeko adina adore duena bakarrik izateak lotsa dakar eta bakarredaaren kozka baino mila bider eramanezina da.

ABC

Inperio sovietaarren amaierara

Zatiketa ekiditeko, militarrek pasa den asteazkenean porrot egin zuten Estatu kolpea prestatu zuten. Berritoki ez badute antolatzen, posiblea baina ez litekeena, datozen urteotan ikusi ahal izango dugu lehenik Estonia, Letonia eta Lituaniako independentzia eta ondoren SESBeko beste errepublika batzuetakoa. Iteltsinek hasi du bidea, lehenik onartu du Baltikoko errepubliketako independentzia eta ondoren Errusiaren independentzia proposatu du, alegia, Europako nazio handi hori SESBetik bereiztea.

(...)
Estonia, Ukraina, Moldavia eta Errusiak demokrazia bideetik abiatu nahi zuten, baina ulertzen zuten beren nazioaren askatasuna, okupazio militarren utzari bateratuaren menpe zegoena, lehen baldintza zela duintasuneko bizitza lortzeko.

Nazio askatasuna sakrifikatzeo alternatiba, nolabaiteko askatasun individuala lortzeko prezio lez, onartezina zen herriaren nahia bi gauzak batera lortzea zelako: nazioa eta demokrazia. Lehenik erriariarra edo georgiarra izateko duintasuna, gero gizaki librea izateko Errusian edo Georgian.

EDITORIALA / 1991-VIII-23

HEMEROTEKA



EL MUNDO

Iteltsinen norabide aldaketa

Errepublikekin Batasuneko hitzarmen eskuzabalegia sinatzeak aurreratu bazuen kolpea, «zortzien taldeak» mesede handia baino ez die egin EEBBeko indar zentrifugeoi eta horien artean egongo litzateke Armadako zati handia. Atzo, Iteltsinek planteatu zuten zer izan behar duen Errusiako «saria», kolpearen aurrean izan duen jarrera erabakiorragatik. Ez du hitzegin soilik hiru koloreko ikurrin errusiarrera itzultzeaz, eta sovie-

ITURRIA / SUD OUEST / 91-VIII-23

tarra alde batera utzteaz, eta goardia nazionala sortzeaz, horrez gain eskatu du Defentsa ministroa eta KGBko lehendakaria erusiarrak izatea, «Errusiak erakutsi duelako bera dela Soviet Batasuneko askatasunaren eta demokraziaren babesgunea».

Errusiako liderrak ikusi du aukera handia dagoela Errusiako Federazioa, EEBBeko hiru laurdenak eta aberastasunik handienak, nazio sovieta- ren buruan jartzeko. Gainera, uste du eskubidea duela Gorbatxovi eskatze- ko, «konfiantza nazionala guber- nua» sor dezala, zalantzarik gabe bere konfiantzakoa izango dena.

(...)
Kolpearen ondoren, Mikhail Gorbatxovek berreskura dezake lehen- dakariaren titulu formalak, baina gaur

egun, Soviet Batasunean, benetako boterea Boris Iteltsinek du.

JOHN MÜLLER / 1991-VIII-23

Diario 16

Kolpearen iluntasuna

Baina, izan al da Estatu kolperik? Kolpea agindu zutenek jadanik agintean bazeuden, agintea beren esku zuten. Zintzilik erantzun baino galde- ra gehiago utzi dituen Altamundeko militarra izan da. Horietako lehena honakoa da, nor zegoen benetan kolpe horren atzean?

(...)
Espelikazio errazak daude galdera zailentzat: bame zatiketak, desber- dintasunak neurri drakonianoak praktikan jartzean, konfiantzarik eza tropetan.

(...)
Nazioarteko presioak eragina izan zezakeen, baina ez zuen balio kolpea agindu zutenei tankeak kalera ez atar- tzea esateko eta Mendebaldeko «neskatila politari», hain maitea den *Micha Gorbatxov* kentzeko. Eta, umore aldatetarekin, *Boris* izan bada, (eta ez *Gorbatxov*) *fartsa bitxi horren* *trikimailua antolatuta duena?* *Hobekien geratu dena da.*

MANUEL LEGUINECHE / 1991-VIII-23

ZUZENDARIARI

Gasteizko Gobernua Iruñakoa bezain eskuzabala balitz orotan...!

Lehenengo hilabetean, Iruñean ospatzen den Udako Euskal Unibertsitateko jo aurretiko larunbatean, La Bastille zeritzon gaztelu-presonde- giko hartzearen bezperan joan nintzen Belagoaren gaineko bortura, Donamartiriren Harri ezagunera, urtero bertan eta esandako egunean baretoustar eta eronkariaren artean geratzen den Hirur Behien Zerga izeneko ituna ikustera. Ederra izan genuen besta eta biharamunean erresuma zaharreko hiribururantz gindoazelarik, Eronkarin, ibar xarmangarri hartako herri nagusian gelditu ginen, Gayarrerren museo bi- sitatzearen, eta turismo bulego- zabalik zegoela konturatu nintzeneko gero, bertara sartu eta hango arduradunek, begi- kotasun handiz, posterrak erakutsi zizkidaten, haietako bat, nahien nuena, har nezan, halako edozein bulegotan ha- lako kartel bat dononori ematen zaiola zitalatzerik. Eskerrak emanik, pozik agurtu nituen.

Unibertsitate ikastaroa amaitu zenean, ene botxora

bihurturik, zera etorri zitzaidan gogora: «Joan egingo nauk hemengo turismo bulegok poster polit baten bila». Gaur jo dut bertara eta... bai zera! Pentsatu ere ez. Ez diotela ino- ri posterrak ematen hemen, hirur ahizpen lurraldeon. Ezta nire ikasgelarako ere —mai- sua nauze Ugaon—, bizkaitar ikuspegi ederrez apaintzeko izanda ere. Haserretu egin naiz benetan, espero nuenak porrot egin du eta.

Zera galdetzen diot neure buruari «Noiz egingo dio jaramonik nire gobernua nafar- rari turismo arloan?» Laster imita dezala!

LUIS ALBERTO ANTON GORBEA BILBO

EARI gutun irekia

EAREN ustez, Gipuzkoako Diputazioa eta Lurraldea Koordinakundea akordioa batera iristea, ETAREN aurrean makurtzea litzateke, zuek horrenbetez urtez tinko irau zen nire bitartean.

Mesedez, ez nahastu tinko izateak zuen buru gogorkeria- rekin.

Gogorarazi behar izanen di- zuet berriro, 1986-1989 urteen bitartean, ETA afer honetan

sartu baino lehen, zuek behin eta berriro uko egin zeniotela edonorekin hitzgeitari. Zuen proiektua ezin hobea, perfek- tua, ia jainkoko egina bezala- koa zenez gero, ez zegoen ino- rekin hitzgeiteko beharrik.


Zuek itxi egin zenioten atea elkarriketari, zuek zarete, zuen EEO lagunekin batera, oraingo egoeraren errudun nagusiak, zuen jauntxokeria eta zitalkeriagatik.

Denok nahi izanen genu- keen bertez modu batez arazoa konpontzea, elkarriketaren bidez eta gure altxor nagusia den natura ahalik eta gehien errespetatuz.

Koordinakundeari buruz «inork ez dakiela zeinek di- ren» erraten duzue, ez erran «inork», zuek zarete ez daki- zuenak, egia esan, jakin nahi duzuen baimo ez dakizue, zuen sistema usteldu honek ikusten uzten duzuen baimo ez duzue ikusten. Koordinakun- deari lagundu eta eutsi egin diogun milaka eta milaka ema- kume eta gizonok, Donostiako manifestaziorik haundienean bildutako 35.000 lagunok, badakigu noren partez hitzge- ten duen koordinakundek; gure partez eta bere kabuz hitz- zegin zinezan jarri zenioten heriotz zigorraren zain dagoen aran baten partez.

IÑAKI MARTIN IRUN

PERTSONAIA



Ertzaintza

Doinua: Anaiak gara lapurditarrek

Atzo goizean jazotakoa hartu beharko da aintzat Bilbo aldean gertatu ziren oso istilu garratzak ikurrinari omenaldia egin nahi zioten behintzat orduan «beltzak» agertu eta han piztu zituzten metxak aze iraina, aze laidoa gure ikurrinarentzat honen moduko ekintzak neurtu behar bakoitzak baina holako kolpe zitalak ez litezke hartu ontzat zeuok zarete Euskal Herriko benetako ardi «beltzak».

JOSEBA SANTXO

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRETA IÑAKI URIA

Publikatzaia: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza sozila, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaiak: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapardi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11